

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Txipiroi erraldoien begi erraldoiak, harrapariengandik ihes egiteko arma

AZKEN ALDI HONETAN leku batean baino gehiagotan arrantzatu dituzte txipiroi erraldoiak. Oso handiak izateaz gain, badute, gorputz atalen artean, bereziki erraldoia den bat: begia. 27 zentimetroko begiak izan ditzakete, eta begi-niniak bederatziz zentimetrokoak.



Zertarako behar ditu horrelako begi handiak 500 metroko sakoneran bizi den animalia batek? Zientzialariak aspalditik dabilta galdera horri erantzun nahian. Elikagaia topatzearekin zerikusirik izango zuela susmoa zegoen, baina azkenean alderantziz pentsatuta aurkitu dute erantzuna, hau da, txipiroiek harrapariengandik ihes egiteko baliatzen dituzte beren begi handiak; kaxaloteengandik ihes egiteko, hain zuzen ere.

Begi handiei esker, eta planktonak emititzen duen argitasuna baliatuz, txipiroiek 150 metrora ikus ditzakete kaxaloteak. Hala ere, kaxaloteek 200 metrora dauden harrapakinak detektatu ditzakete, radarra erabilia. Borroka interesgarria, ezta?



Higgs-en bosoa aurkitzeko lasterketa

60KO HAMARKADAN, Peter Higgs fisikari britainiarrak esan zuen partikula elementalen artean beste guztien jatorria izango zen partikula bat existitu behar zela, eta bosoi deitu zion. Oraindik ez da frogatu halakorik dagoenik. Zientziaren argotean "Jaungoikoaren partikula" ere esaten zaio bosoiari.

Azken aldian, CERNeke ikerketa asko argitara ematen ari dira hedabideetan. Oraintxe puri-purian dagoen gaia argiaren abiadura baino azkarrago mugitzen omen diren neutrinoena da, baina horretaz eztabaidatzen den bitartean, CERNeke esan du Higgs-en bosoiaren lehen aztarnak aurkitu dituela. Ez da ahaztu behar horixe dela, hain justu, 1.800 milioi euro kostatu den LHC partikula-azeleragailuaren helburu nagusietakoa. Bitartean, gauza bera lortu nahian dabilta AEBetan, Tevatron azeleragailuaren bitartez. Bateko eta besteko zientzialariek diote ez direla elkarrekin lehian ari, lankidetzan baizik, baina...



Sherwood Rowland hil da

Sherwood Rowland, Nobel saridun estatubatuarra, ozono geruzaren mehetzean klorofluorokarbonatuek zuten eragina iragarri zuen joan den mendeko 70eko hamarkadan. Hasieran guztien mesprezua jaso bazuen ere, hamarkada bat geroago arestian aipatu substantzien debekua ezarri zen mundu osoan.

<http://ttiki.com/35852> (Ingelesez)

Arratoiak gizakien parekoak dira erabakiak hartzeko orduan

New Yorkeko Cold Spring Harbor laborategiko Anne Churchland ikerlariaren arabera, hainbat iturri sententialetako informazioan oinarrituta arratoiak hartutako erabakiak eta gizakiak hartuko litzuketanak oso antzekoak dira.


<http://ttiki.com/35853> (Gaztelaniaz)

Gizaki mota ezezagun baten aztarnak aurkitu dituzte Txinan

Ikertzaile talde txinatar-australiar batek orain 12.000 urte inguru bizi izan zen hominido baten fosilak topatu ditu Txinan. Badirudi hominido ezezagun horrek lurra partekatu zuela *Homo sapiens*-ekin, baina galdera ugari dago oraindik argitzeke.

<http://ttiki.com/35854> (Frantsesez)

DANNYNOLAN.COM



Peter Higgs.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16